

Eli

Laburu Labaka

Astigarraga, 1958

Irakaslea eta gizarte mugimenduetan inplikaturik. Bere militantzia nerabezaroan hasi zen, irakasle lanetan zebilela sindikatu zen politika ezkertiarrean bidea irekiz; ondoren alkate.

Profesora e implicada en movimientos sociales. Su militancia comenzó en la adolescencia; mientras trabajaba como profesora fue sindicalista, abriendo camino a la política de izquierdas; posteriormente, fue alcaldesa.

“

Berez oso
emakume
alaia naiz
eta parra
egin behar dut
bai edo bai [...] **Zakarra** eta
goxoa,
hori etxetik
datorkigu.



Jaio nintzen Astigarragan, Ipintza baserrian. Bizitza guztia bertan egin dut, nire ama hil den arte. Ipintzak niretzako oroitzapen gogorrak ditu. Aitaren bortizkeria batetik, biolentzia psikologia... Amaren *rechazo*-a, nahi gabea eta inkontzientea, dudarik gabe; maitasuna bazuen, hori ez dut ukatzen. Gerora Ipintzan dudan oroitzapena nire senar ohiarena eta egin dizkidanak...

Bi etxebizitzako baserria zen eta aldamenean gizonezko pila bat pasatzen zen handik. Hori izan nuen lehenengo *abuso* sexuala. Hori gorde dut ia 50 urte nituen arte. Ez nion inori ezer esan.

Gure heziketa ere oso gogorra izan da bere bizipenak zirela medio. Oso zorrotza izan zen aita. Gero bazuen maitasuna emateko gaitasuna baita ere. Nire amak aldiz nahi zuen guk ikastea. Ez zen normala, baina 3 urterekin jada sartu ninduten eskolara. Etxea gogorra bazen, eskola oraindik gogorragoa.

Nazionaletan izan nuen esperientzia polita. Gogoratzen naiz erredakzioa eginarazi zigutela familiari buruz. Eta niri sartu zidatena zen ni jaio nintzela nire zaharrak zaintzeko, gure obligazioa hori zela. Eta hori erredaktatu nuen. Eta irakasleak esan zidan: "Ez, ez. Zu ez zara horretarako jaio. Zerbait gehiago egiteko balio duzu". Eta zen lehenengo aldia ikusi nuena "Ostras, ba ez naiz hain tuntuna!". Irakasle hark, Doña Pilar, piztu zidan argitxo bat. Eta nire amaren esana zen "besteak hiregan ez agintzeko, ikasi".

Hor ibili nintzen gero umeak zaintzen, eta "Balio dezu!" eta "Umeekin ondo moldatzen zara!". Eta horrela egin nuen magisteritza, eta bat eta beste... eta horrela egin nintzen irakasle. Baina nik uste dut irakaslearenak erakartzen ninduela, ikusten nuelako umeak nik kontatzen nituen ipuinekin eta nire jolasekin pozik zeudela. Eta nik nuen oroitzapena ez zen hori. Nik beldurra nion eskolari. Eta nik ez nuen nahi ez nire umerik, ez inork beldur hori izatea.

Politikako interesa sindikatutik etorri zen. Aldatu nahi genituen gauzak, haurraren bidelagun izan nahi genuen eta ez instruktore. Sindikatutik lokalizatu ninduten eta lehendabizi izan nintzen zinegotzi. Zerrendetan atera nintzenez, kriston erreboluzioa izan zen, Ipintzako alaba ezkerrean. Eta gero alkatetzarako aurkeztu nuen nire burua. Familia lehendabizi shockean gelditu zen. Babes handia jaso nuen herrian.

Alkate nintzela emakume izatea izan zen lehendabiziko egunetik bizi izan nuen muga. Mundu urbanistikoa ez da emakumeen mundua. Mahaiburuan ez nintzen esertzen, bazter batean. Eta etorri zen konstruktore bat "Un alcalde tiene que presidir la mesa. Mal alcalde vas a ser si te vas a sentar ahí".

Beste motibo bat alkatetzarako aurkezteko izan zen ikusten nuelako jada nire senar ohiak geroz eta espazio gutxiago uzten zidala ni izateko. Eta alkatetzan ere gertatu zitzaidan. "Ez banaiz nire nukleo familiarrean hau ondo

eramateko gai, nola izango naiz herri bat aurrera eramateko gai?". Nire burua zigortu dut horretan. Irakaskuntza aktiboa ere utzi egin behar izan nuen, ezin nuen lotsarekin. "Nola erakutsiko diet ni ez banaiz gai nire burua defendatzeko?".

Terapiak eta hasi ditudanean eta abar, biktima sentitu nintzen, baina biktima paper horrek eskatzen zidan besteek ikustea niri gertatzen ari zitzaidana eta laguntzea. Eta besteek ezin dute ikusi. Amorru hori bilakatu behar da indar. Energia bilatu behar da hortik ateratzeko.

Momentu honetan nire desobedientzia zertan dagoen? Ausartu naiz desobeditzera nire burua maitatzen ikasi dudalako, maitatzen baino gehiago errespetatzen. Ez dago eskubiderik nirekin egin dutena egiteko.

Berez oso emakume alaia naiz. Eta parra egin behar dut bai edo bai. Zakarra baino goxoa. Hori etxetik datorkigu. Nik esango nuke ni naizela erresilientea, ama ona eta irakasle ona.

Nací en Astigarraga, en el caserío Ipintza. He vivido toda mi vida allí, hasta que mi madre murió. Ipintza tiene duros recuerdos para mí. Desde una brutalidad paterna, violencia psicológica... Rechazo de mi madre, sin duda, involuntaria e inconsciente; porque sí que tenía amor, eso no lo niego. Más tarde, mi recuerdo en Ipintza, el de mi ex marido y las que me ha hecho...

Se trataba de un caserío de dos viviendas por el que pasaban multitud de hombres. Ahí fue donde sufrí mi primer abuso sexual. Eso lo he guardado hasta que tenía casi 50 años. No se lo conté a nadie.

Nuestra educación también ha sido muy dura por sus propias vivencias. Mi padre fue muy recto. También tenía la capacidad de dar amor después. Mi madre, en cambio, quería que estudiáramos. No era lo normal, pero con 3 años yo ya entré en la escuela. Si la casa era dura, la escuela todavía era más dura.

Tuve una bonita experiencia en los colegios nacionales. Recuerdo que nos hicieron hacer

una redacción sobre la familia. Y lo que a mí me habían metido era que yo había nacido para cuidar de mis mayores, que era nuestra obligación. Y eso es lo que escribí. Y la profesora me dijo: "No, no. Tú no has nacido para eso. Sirves para hacer algo más". Y fue la primera vez que vi "¡Ostras, pues no soy tan tonta!". La profesora Doña Pilar me encendió una luz. Y mi madre decía: "Para que las otras personas no manden sobre ti, estudia".

Luego estuve cuidando de niños y niñas. Me decían: "¡Vales para esto!" y "¡Te llevas bien con las niñas y los niños!". Y así hice magisterio, y uno y otro... y así me hice profesora. Pero yo creo que me atraía lo de profesora, porque veía que las niñas y los niños estaban contentos con los cuentos que les contaba y mis juegos. Y no era mi recuerdo. Yo tenía miedo de la escuela. Y yo no quería que mi hijo ni nadie tuviera ese miedo.

El interés por la política vino del sindicato. Queríamos cambiar cosas del colegio, queríamos ser compañeros de viaje del niño o niña, y no personal instructor. Fui localizada por

el sindicato y primero fui concejala. Cuando salí en las listas, fue una auténtica revuelta, la hija de Ipintza en la izquierda. Y luego me presenté para alcaldesa. La familia se quedó primero en shock. Recibí un gran apoyo en el pueblo.

Siendo alcaldesa, ser mujer fue un límite que sufrí desde el primer día. El mundo urbanístico no es mundo de mujeres. No me sentaba presidiendo la mesa, yo en un rincón. Y vino un constructor: "Un alcalde tiene que presidir la mesa. Mal alcalde vas a ser si te vas a sentar ahí".

Otro motivo para presentarme a la alcaldía fue que veía que mi ex marido me dejaba cada vez menos espacio para ser yo. Y en la alcaldía también me sucedió: "Si no soy capaz de llevarlo bien en mi núcleo familiar, ¿cómo voy a ser capaz de llevar adelante un pueblo?". En eso me he castigado. También tuve que abandonar la enseñanza activa, no podía con la vergüenza. "¿Cómo les enseñaré si yo no soy capaz de defenderme?".

Cuando he empezado en terapias y, etc., me sentí víctima, pero ese papel de víctima me pedía que las demás personas vieran lo que me estaba pasando a mí y me ayudaran. Y los demás no lo pueden ver. Esa rabia tiene que convertirse en fuerza. Hay que buscar energía para sacarla.

¿En qué está mi desobediencia en este momento? Me he atrevido a desobedecer porque he aprendido a amarme a mí misma, a respetarme más que a amar. No hay derecho a hacer lo que han hecho conmigo.

De por sí soy una mujer muy alegre. Y tengo que reírme sí o sí. Brusca pero dulce. Eso nos viene de casa. Yo diría que soy resiliente, buena madre y buena profesora.

Ikus bideoa
Ver vídeo

